



Errepideko bihurgune orotan jarri dute trafiko-seinale bat.

ORO zenbatzailea

- Mugagabeen erabiltzen da:

- oro, orok**k**, orori, ororentzat, orotan,
orotara, orotatik...

- Proiektu **oro** bi urratsetan egiten da.
- Ikusle **orok** ulertu behar du.
- Gizarte mota **orotan** berdin gertatzen da.

ORO zenbatzailea

- Zenbatzaileak soilik hartzen du deklinabide-atzizkia, edo zenbatzaileak zein izenak:
 - Ikasle **orori** ematen diot aholku bera.
 - Ikasle**ei orori**...
 - Ikusle **orok** ulertu behar du.
 - Ikusle**ek orok**...

Izenak ere deklinabide-atzizkia hartzen duenean, izenaren atzizkia mugatu pluralean jokutzen da.



ORO zenbatzailea

- Deklinabide-atzizkia zenbatzaileak soilik hartzen duenean, aditzarekiko numero-komunztadura, oro har, singularrean egiten da:
 - Proiektu **oro** bi urratsetan egiten **da**.
 - Ikusle **orok** ulertu behar **du**.
 - Interesdun oro**ri** emango **zaio** informazioa.



ORO zenbatzailea

- Deklinabide-atzizkia zenbatzaileak eta izenak hartzen dutenean, ostera, pluralean egiten da aditzarekiko numero-komunztadura:
 - Proiektu**ak oro** bi urratsetan egiten **dira**.
 - Ikusle**ek orok** ulertu behar **dute**.
 - Interesdun**ei orori** emango **zaie** informazioa.

ORO zenbatzailea: adibideak

- Eskola koraniko tradizionalekin batera, bazeuden hiriburuan bertze eskola batzuk, pribatuak gehienak, non (...) mota **orotako** gaiak ematen baitziren: aritmetika, geometria, geografia, gramatika... *Arma, tiro, bamm!*, Joan Mari Irigoien, 2013.
- Korrika abiatu ginen, alde **orotara**. *Enbataren zirimolan*, Daniel Landart, 2013.
- Ezin dizute bekoz beko hitz egin, zeharka begiratzen diote maite duten **orori**. *Trilogia hiperlaburra*, Karlos Linazasoro, 2016.
- Hortaz, etxera joango garenean batzuk ez gara inongo geruzatan sartuko, soziedade **orotatik** kanpo izango gara. *Jende desegokia*, Gaizka Zabarte, 2015.

ORO zenbatzailea: adibideak

- Desio**ak oro** isiltzen dira hura aurrean dela.

Werther gaztearen arrangurak, Goethe, Wolfgang. Euskaratzailea: Matías Múgica, 2013.

- [...] badirudi logikoa dela pentsatzea talde hori osatzen duten kide**ek orok** dutela hori errespetatu beharra

Arrazoiaren hitza. Argudio-bideen arrastoan, Jose Inazio Basterretxea, UEU, 2007.

- Haien irudiko, modernitatea Islamak berak gorpuzten du, gizabanakoaren esparru**etan orotan** —publikoan nahiz pribatuan— kode etikoa proposatzen baitu.

Jakin aldizkaria, 129 zbk., 2002.

- Iturriak inkoherenteak direlarik, iturri**en ororen** intentsitateak batu beharra dago.

Fisika zientzialari eta ingeniarentzat 2, Askoren artean, EHU, 2012.



ORO zenbatzailea

Oharra: zenbatzaileak zein izenak atzizkia hartzea ez da oso ohikoa testu idatzietan.